



**AMATASUNA ETA EDOSKITZEA BABESTE
LANEKO ARRISKUEN KONTRA**

2015eko URRIA

AURKIBIDEA

1.- XEDEA

2.- APLIKAZIO EREMUA

3.- DEFINIZIOAK

4.- AMATASUNA BABESTEA

5.- JARDUTEKO PROZEDURA

6.- FLUXU DIAGRAMA

7.- ERREFERENTZIAZKO LEGEDIA

8.- ERANSKINAK:

- HAURDUNALDIA EDO EDOSKITZE NATURALA JAKINARAZTEA**
- PREBENTZIO ZERBITZUA / LURRALDE ORDEZKARITZAK**
- EBALUAZIO ZEHATZIK BEHAR EZ DUTEN LANPOSTUEN ZERRENDA**



1.- XEDEA

Agiri honek xede du jarduteko metodo sistematiko bat ezartzea eta prebentzio-neurriak hartzea, **amatasuna (edoskitzaroa barne)** laneko arriskuen kontra babesteko.

2.- APLIKAZIO EREMUA

Prozedura aplikatuko zaie Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko barruan **Hezkuntzari Laguntzeko Zerbitzu Publikoetan eta Hezkuntza Zentroetan** lan egiten duten eta haurdun dauden, duela gutxi erditu direnei eta/edo edoskitzaroan dauden zein haurdunaldia planifikatzen ari diren emakumeei.

3.- DEFINIZIOAK

Haurdun dagoen, erditu den edo edoskitzaroan dagoen emakumezko langilearen laneko osasuna eta segurtasuna hobetzeko neurriak aplikatzeari buruzko 1992ko urriaren 19ko **Kontseiluaren 92/85/EEE zuzentarauak** hiru egoera bereizten ditu amatasunaren babesaren arloan:

- **Haurdun dagoen langilea**

Enpresari haurdun dagoela jakinarazi dion langilea, estatuko legediei edo jardunbideei jarraiki.

- **Erditu den langilea**

Erditu den edozein langile, estatuko legedien eta jardunbideen arabera, eta legedi edo jardunbide horiek betez, enpresari haren egoera jakinarazten dion langilea.

- **Edoskitzaroan dagoen langilea**

Edoskitzaroan dagoen edozein langile, estatuko legedien eta jardunbideen arabera, eta legedi edo jardunbide horiek betez, enpresari haren egoera jakinarazten dion langilea.

4.- AMATASUNA BABESTEIA

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen (31/1995 Legea) amatasuna babestearen gaineko 26. artikulua ezartzen du **arrisku-ebaluazioak** barne hartu behar dituela haurdun dagoen edo erditu den langileak zer-nolako, zenbateko eta zenbaterainoko esposizioa jasaten duen haren osasunari edo umekiarenari kalte egin diezaioketen laneko baldintzekiko, prozedurekiko edo eragileekiko, arrisku zehatza eduki dezaketenez zereginak gauzatzekoan.

Ebaluazioaren emaitzek erakusten badute langileen segurtasuna edo osasuna arriskuan daudela edo haurdunaldiari edo edoskitzaroari eragin dakiekeela, enpresaburuak hartu beharreko neurriak hartuko ditu arrisku horrekiko esposizioa saihesteko, eragindako langilearen **laneko arduraldia edo baldintzak egokituz**.

Laneko baldintzak edo arduraldia egokitu ezin badira, edo egokitu arren lanpostuaren baldintzek haurdun dagoen langilearen edo umekiaren osasunari kalte egin badiezaiokete, haren egoerarekin bateragarria den **beste lanpostu edo funtzio bat** bete beharko du. Horretarako, enpresaburuak, langileen ordezkariekin kontsultatu ondoren, **arriskurik ez daukaten lanpostuen zerrenda** osatu beharko du.

Teknikoki edo objektiboki lanpostu-aldaketa hori egitea ezinezkoa bada, edo arrazoi justifikatuengatik eska ezin badaiteke, langilearen **kontratua eten ahal izango da, haurdunaldian zehar arriskuan egoteagatik**.

Aurrez adierazitakoa aplikatuko da edoskitze naturaleko epean ere, baldin eta laneko baldintzek emakumearen edo seme-alabaren osasunari kalte egin badiezaiokete. Halaber, emakume kaltetuaren kontratua eten ahal izango da **bederatzi hilabetetik beherako seme-alaben edoskitze naturalean** zehar arriskuak edukitzeagatik, teknikoki edo objektiboki lanpostu-aldaketa egitea ezinezkoa bada edo arrazoi justifikatuengatik eska ezin badaiteke.

5.- JARDUTEKO PROZEDURA

■ Eskatutako dokumentazioa:

1.- **Haurdunaldia edo edoskitze naturala jakinaraztea.**

2.- **Osasun Zerbitzu Publikoaren medikuaren txostena** (Familiako Medikuntza edo Ginekologia), haurdunaldia edo edoskitze naturala dela egiaztatzeko.

■ **Langileak** aurrez adierazitako dokumentazioa (**ERANSKINA**) bidaliko dio Hezkuntza Saileko Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuko arduradunari, Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzaren bitartez (Hezkuntza Saileko Erregistroa edo Zuzenean Zerbitzua). Medikuen txostena **gutun-azal itxi** batean entregatuko da, eta "**konfidentziala**" hitza eramango du idatzita.

■ Behin dokumentazioa Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuko egoitza nagusian jaso denean, Zerbitzuko arduradunak Prebentzio Zerbitzuko lurralde-egoitzetako UBSetara eta Eremu Teknikoetara bideratuko du.

■ Langile eskatzailearen zentroari dagokion Prebentzio Zerbitzuko lurralde-egoitza **harremanetan jarriko da langilearekin**, amatasuna eta edoskitzea babesteko prozedurari hasiera emateko.

— Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuak langilearen lanpostuaren **arriskuen ebaluazio zehatza** egingo du, eta **osasunaren zaintza** ere bai, laneko arriskuei dagokienez.

— Prebentzio Zerbitzuak **txostena idatziko du**, eta, bertan, lanpostua egokitzeko prebentzio-neurriak proposatuko dira, edo, horiek ezinezkoak edo eraginkorrak ez badira, lanpostuz aldatzea, arriskutsuak izan daitezkeen laneko baldintzekiko, prozedurekiko edo eragileekiko esposizioa saihesteko.


- Langileari txostena eta dagozkion medikuaren txostenak emango zaizkio, eta, halaber, dagozkion **Lurraldeko Langileen Buruzagitzara** bidaliko dira, Hezkuntza Sailak arriskuarekiko esposizioa saihesteko beharrezko neurriak har ditzan, langilearen lanpostua egokituz edo lanpostuz aldatuz.
- Horretarako, Hezkuntza Sailak, langileen ordezkariekin kontsultatu ostean, **arriskurik ez daukaten lanpostuen zerrenda** osatu eta eguneratuta mantendu beharko du. **(ERANSKINA)**
- Laneko baldintzak edo denbora egokitu ezin badira, edo egokitu arren lanpostu baten baldintzek kalte egin badiezaiokete haurdun dagoen langilearen, umekiaren edo bularreko umearen osasunari, eta, gainera, ezinezkoa bada lanpostuz aldatzea, **langileak** Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzaren bitartez (Pertsonala / Gizarte Segurantza) **(ERANSKINA) medikuntza-ziurtagiria eskatuko du, haurdunaldian edo edoskitze naturalean izandako arriskuei dagokienez.**
- **Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzak** Laneko Istripuen eta Gaixotasun Profesionalen Mutuari (Mutualia) hark eskatutako agiriak eta txostenak **emango dizkio**, haurdunaldian edo edoskitze naturalean arriskua izateari dagokion prestazioa izapidetzeko.
- Behin Laneko Istripuen eta Gaixotasun Profesionalen Mutuari dokumentazioa emanda, **Mutualiako Medikuntza Zerbitzua** harremanetan jarriko da langilearekin, lanpostuan arriskurik dagoen baloratzeko.
- Mutuak aldeko ziurtagiria ematen badu, **langileak haurdunaldian edo edoskitzean arriskua izateari dagokion prestazioa eskatuko du**, Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzaren bitartez (Pertsonala / Gizarte Segurantza) **(ERANSKINA)**, eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak lan-kontratua aldi baterako etengo du.

— **Langilea MUFACEkoa bada**, aurretik deskribatutako prozesuaren antzeko prozesuari jarraituko zaio.


· **Langileak** Hezkuntza Sailari haurdun edo edoskitze naturalean dagoela **jakinaraziko dio**, ezarritako moduan eta beharrezko dokumentuak aurkeztuz.

· Hezkuntza Sailak **jardutera-prozedura martxan jarriko du**, ezarritako urratsak emanez, eta eskatutako agiriak eta txostenak bidaliko dizkio MUFACEri, haurdunaldian edo edoskitze naturalean arriskua izateari dagokion prestazioa izapidetzeko.

· **MUFACEk aldeko ziurtagiria igortzen badu**, langileak haurdunaldian edo edoskitze naturalean arriskua izateari dagokion prestazioa eskatuko du, eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak aldi baterako etengo du lan-kontratua.




6.- FLUXU DIAGRAMA



7.- ERREFERENTZIAZKO LEGEDIA

- Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legea.
- Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretua.
- Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretua aldatzen duen martxoaren 6ko 298/2009 Errege Dekretua, haurdun dagoen, erditu den edo edoskitzaroan dagoen langilearen laneko osasuna eta segurtasuna hobetzeko neurriak aplikatzeari dagokionez.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eraginkorra izateko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa.
- Langileek familia-bizitza eta lana bateratzea sustatzeko azaroaren 5eko 39/1999 Legea.
- Gizarte Segurantzak amatasunagatik, aitatasunagatik eta haurdunaldian eta edoskitze naturalean arriskua izateagatik ematen dituen prestazio ekonomikoak arautzen dituen martxoaren 6ko 295/2009 Errege Dekretua.



8.- ERANSKINAK

HAURDUNALDIA EDO EDOSKITZE NATURALA JAKINARAZTEA COMUNICACIÓN DE EMBARAZO O LACTANCIA NATURAL

IZENA/NOMBRE _____ ABIZENAK/APELLIDOS _____
 NAN/DNI _____ JAIOTEGUNA/FECHA DE NACIMIENTO _____
 LANPOSTUA/PUESTO DE TRABAJO _____
 IKASTETXEA/CENTRO _____ HERRIA/LOCALIDAD _____
 ETAPA/ZIKLOA/MAILA-ETAPA/CICLO/NIVEL _____
 HARREMANETARAKO TELEFONOA/TELÉFONO DE CONTACTO _____

HAURDUNALDIA PLANIFIKATZEA (X izpiekiko esposizioa jasaten duten langileek bakarrik)
 PLANIFICACIÓN DE EMBARAZO (Solo trabajadoras con exposición a rayos X)

HAURDUNALDIA Haurdunaldi-astea
 EMBARAZO Semana de gestación
 URTEA HH EE
 Aurreikusitako erditze-data --
 DD MM AÑO
 Fecha probable de parto --

EDOSKITZE NATURALA Seme-alabaren hilabeteak
 LACTANCIA NATURAL Meses del hijo/a

LANPOSTUAN BETETZEN DIREN FUNTSEZKO ZEREGINAK/TAREAS
 FUNDAMENTALES QUE SE REALIZAN EN EL PUESTO DE TRABAJO
 (Nahitaez bete behar da/Obligatorio rellenar)

, 20 (e)ko (a)ren a
 , a de de 20

Eskatzailearen sinadura/Firma solicitante

Nori zuzenduta: PREBENTZIO ZERBITZUKO ARDURADUNARI
A la atención de: RESPONSABLE DEL SERVICIO DE PREVENCIÓN

PREBENTZIO ZERBITZUA / LURRALDE ORDEZKARITZAK**LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIO
ZERBITZUKO ARDURADUNA****Amparo Betegón Hernando** Tel.: 945 01 84 11

Faxa: 945 01 83 36

E-maila: prebentziohezkuntza@euskadi.eusDonostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz**LURRALDE ORDEZKARITZAK
Pertsonala / Gizarte Segurantzza**

ARABA/ÁLAVA: Tel.: 945 01 72 38

Faxa: 945 01 72

BIZKAIA: Tel.: 944 03 11 38

Faxa: 944 03 11 63

GIPUZKOA: Tel.: 943 02 28 76

Faxa: 943 02 28 75

EBALUAZIO ZEHATZIK BEHAR EZ DUTEN LANPOSTUEN ZERRENDA

IRAKASLEAK ⁽¹⁾

- Lehen Hezkuntzako irakaslea: ohiko ikasgelan irakastea.
- Bigarren Hezkuntzako irakaslea: ohiko ikasgelan irakastea.
- Bigarren Hezkuntzako irakaslea: informatika-ikasgelan irakastea.
- Bigarren Hezkuntzako irakaslea: marrazketa-ikasgelan irakastea.
- HHIko Irakaslea: ohiko ikasgelan irakastea.
- Orientatzailea.
- Prestakuntza Zikloetako irakasleak: ohiko ikasgelan irakastea.
- Zuzendaritza-taldeko kidea arduraldi esklusiboarekin.
- IRALEko irakaslea.
- Administrazio Kudeaketaren arduraduna.
- Jarduera Osagarrien eta Eskolaz Kanpoko Jardueren arduraduna.

⁽¹⁾ **Baldintza hauek betetzen baditu betiere:**

- **Ikastetxetik kanpo jarduera didaktikorik ez burutzea.**
- **Jolastokian zaintzarik ez egitea.**
- **Ebaluazio zehatza behar duten lanpostuetan zaintzarik ez egitea.**
- **Jangelako arduraduna ez izatea.**
- **Altzari egokiak edukitzea.**

